

begirada

82

azaroa
2021




Photo by Orlando Imperatore / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



LATINOAMERIKAR JATORRIKO BIZTANLERIA EAE-N 2021

Begirada honetan, EAEn bizi diren latinoamerikar jatorriko biztanlerian jarri dugu arreta, eta 2015eko abuztuan argitaratu genuen 58. begiradako datuak eguneratuko ditugu.

Garai hartan gertatu zen bezala, Latinoamerikako biztanleria da oraindik ere lurraldean presentzia handiena duen atzeritar jatorriko kolektiboa. Hala ere, nabari da ordutik hona fluxuak aldatu eta dibertsifikatu egin direla, jatorri berriak gehitu baitira.


1 Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren bilakaera EAEn

1. grafikoa

Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren bilakaera EAEn. 2001-2021

2021eko urtarrilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko –aurrerantzean EAE– latinoamerikar jatorriko biztanleria 127.371 lagunekoa zen, hau da, lurraldeko biztanleria osoaren % 5,8.

1. grafikoa ikus daitekeen bezala, EAEn migrazio-prozesua hasi zenetik, Latinoamerikako biztanleria kopuruak gora egin du, eta lau fase bereiz daitezke. 2001 eta 2008 urteen artean, latinoamerikar jatorriko pertsonen etorrerak nabarmen areagotu ziren. Atzeraldi ekonomikoarekin, etortze-erritmoa jaitsi egin zen, eta saldo negatiboa ere izan zuen 2012-2014 urteetan, krisiaren gordintasun handieneko garaiarekin batera. Adierazle ekonomikoak hobetu zirenean, berriro suspertu ziren etorrerak Latinoamerikatik. Hazkunde hori txikia izan zen hasierako uneetan, baina indar handiagoa hartu zuen 2016tik aurrera batez ere. Azken aldi honetan, eta COVID-19k eragindako mugikortasuna kontrolatzeko ezohiko neurrien ondorioz, iritsitakoen hazkunde neurritsuagoa sumatu da.




Iturria: Geuk egina EINen datuetan oinarrituta.

2. grafikoa

Latinoamerikar jatorriko biztanleria atzerritar jatorriko biztanleria osoarekiko, lurralde historikoen arabera. 2021

■ Latinoamerikar jatorrikoen % ■ Atzerritar jatorriko gainerakoen %



Latinoamerikar jatorriko biztanleria % 51,7 da, EAeko atzerritar jatorriko biztanle guztiekiko –2. grafikoa–. Kolektibo horrek hiru lurralde historikoetan duen pisuari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu Bizkaian handiagoa dela. Horrela, lurralde horretan bizi diren atzerriko 121.737 pertsonetatik, 67.282 Latinoamerikako herrialderen batean jaiok dira, hau da, guztizkoaren % 55,3.

Bizkaiaren ondoren, Gipuzkoa da latinoamerikar jatorriko biztanleen ehuneko handiena duen bigarren lurraldea (% 49,6) –lurraldean bizi diren atzerritar jatorriko bi lagunetik ia bat–, eta, ondoren, Araba dago, urrunago (% 45,5).


Iturria: Geuk egina EINen datuetan oinarrituta.

1. mapa

Amerikar jatorriko biztanleriaren banaketa eskualdeka. 2020

Eskualdeari dagokionez¹, Bilbo Handia –54.726 lagun– da, alde handiarekin gainera, amerikar jatorriko biztanleak bizi diren lurralde nagusia². Izan ere, 2020an EAEn bizi ziren jatorri horretako pertsona guztien % 43,6 eskualde horretan bizi ziren. Horren ondoren, Donostiak (21.430 lagun) eta Arabako Lautadak (17.413 lagun) dute Amerikako biztanle kopuru handiena. Horren harira, 58. panoramikako datuetara itzuliz, ikusten da 2015etik beren egoitza-ereduei eutsi dietela biztanle amerikarrek. Garai hartan bezala, hiru hiriburuak dauden eskualdeek jarraitzen dute amerikar jatorriko biztanleen etorrera kapitalizatzen, amerikar jatorriko pertsonen % 74,5 hiru hiriburuetakoko batean bizi baitira.

Eskualde bakoitzeko atzerritar biztanleria guztiarekiko amerikar jatorriko biztanleriaren proportzioa kontuan hartzen badugu –1. mapa–, handiagoa da Plentzia-Mungia eskualdean (% 59,5), Bilbo Handian (% 59,1) eta Donostian (% 58,5). Aitzitik, EAEko batez bestekoaren azpitik dago Arabako Errioxan (% 18,3), Goierriin (% 30,0), Arabako Haranetan (% 33,5) eta Durangaldean (% 37,3).



Iturria: Geuk egina EInen datuetan oinarrituta.

¹ Estatistika Institutu Nazionalak 2021erako argitaratutako datuek, behin-behinekoak direnez, ez dakarte udalerriei eta eskualdeei dagokien informazio berezia. Hortaz, atal honetarako 2020ko maila horretako datu bereziak erabili dira.

² Era berean, EInek argitaratutako udal-datuek ez digute uzten bereizten Latinoamerikan eta Ipar Amerikan jaiotako populazioa, ez udal-mailan, ez eskualde-mailan. Horrenbestez, 1. mapan eta 1. taulan amerikar jatorriko biztanleriari buruz ari gara, kontinente horretan jaiotako pertsona orori erreferentzia eginez. Hala ere, eta Ipar Amerikako biztanleriak euskal testuinguruan duen pisu txikia ikusita, uler dezakegu gehienak latinoamerikar jatorriko biztanleak direla.

1. taula

Amerikar jatorriko biztanle-kopuru handiena duten udalerriak, probintziaka. 2020

ARABA		
Udalerrria	Amerika, guztira	Amerikarren %, atzer. jat. biztanleekiko
Gasteiz	16.880	47,4
Laudio	664	51,6
Amurrio	378	43,1
Iruña Oka	163	40,5
Dulantzi	136	34,1
Agurain	120	19,0
Legutio	89	36,9
Oion	88	18,6
Bastida	61	31,1
Aiara	51	53,1
Arabako gainerakoa	741	29,9
Araba guztira	19.371	45,4

BIZKAIA		
Udalerrria	Amerika, guztira	Amerikarren %, atzer. jat. biztanleekiko
Bilbao	28.012	59,8
Barakaldo	6.730	61,6
Getxo	5.482	66,2
Erandio	2.055	72,9
Portugalete	1.893	55,0
Leioa	1.822	63,5
Basauri	1.719	48,6
Sestao	1.614	53,4
Durango	1.533	45,6
Santurtzi	1.410	44,9
Bizkaiko gainerakoa	14.085	45,0
Bizkaia guztira	66.355	55,5

Bilbo da EAEn amerikar jatorriko biztanle gehien dituen udalerrria, 28.012 lagun 2020ko urtarrilaren 1ean. Bizkaiko hiriburuaren atzetik Gasteiz (16.880 lagun) eta Donostia (14.026 lagun) datoz. Oro har, EAeko hiru hiriburuak hartzen dute EAEn bizi diren amerikar jatorriko biztanleen kopuru handi bat.

Bestalde, Barakaldo (6.730 lagun), Getxo (5.482 lagun) eta Erandio (2.055 lagun) dira, Bilboren ondoren, Bizkaian amerikar jatorriko pertsona gehien bizi diren udalerriak. Gipuzkoan, Irun (4.164 lagun) eta Errenteria (2.087 lagun) dira udalerrri nagusiak Donostiaren atzetik. Azkenik, Arabaren kasuan, Gasteizek biltzen ditu lurralde historikoko amerikar jatorriko biztanle gehienak, eta, beraz, oso urrun dago hurrengo bi udalerrietatik, Laudio (664 lagun) eta Amurrio (378 lagun).

GIPUZKOA		
Udalerrria	Amerika, guztira	Amerikarren %, atzer. jat. biztanleekiko
Donostia	14.026	61,9
Irun	4.164	44,2
Errenteria	2.087	51,4
Eibar	1.606	45,2
Lasarte-Oria	1.388	66,5
Zarautz	1.306	65,3
Arrasate	1.249	51,0
Hernani	1.074	52,7
Tolosa	1.073	54,4
Pasaia	1.061	52,2
Gipuzkoako gainerakoa	10.860	39,9
Gipuzkoa guztira	39.894	50,2

Iturria: Geuk egina EInen datuetan oinarrituta.


Jatorriaren araberako datuei erreparatzen badiegu –3. grafikoa–, Kolonbia da EAeko latinoamerikar jatorriko biztanleen jatorri herrialde nagusia. Hala, 2021eko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatuta zeuden Latinoamerikako 127.371 pertsonetatik 27.074 Kolonbian jaioak ziren (guztizkoaren % 21,3). Kolonbiarekin batera, Nikaragua (15.037 lagun), Bolivia (12.107 lagun), Venezuela (10.145 lagun) eta Ekuador (8.935 lagun) dira jatorri latinoamerikar nagusiak. Bost herrialde horietakoak dira EAEn bizi diren latinoamerikar jatorriko pertsonen % 57,5.

Migrazio-fluxuen bilakaera desberdina da jatorriaren arabera. Kolonbiar jatorriko biztanleen kasuan, XXI. mendearen lehen urteetan gora egin zuen, krisialdian atzera egin zuen, baldintza ekonomikoak hobetu zirenean suspertu egin zen eta, berriro ere, COVID-19ren ondorioz moteldu egin zen. Bestalde, Nikaraguaren kasuan, EAerako migrazio-fluxuak nolabaiteko pisua izaten hasi ziren krisi betean, eta 2016/2017 urtera arte ez ziren garrantzia hartzen hasi. Izan ere, azken urtean Nikaragua eta Kolonbia izan dira EAEn gehien hazi diren jatorrietako bi. Azken jatorri horren kasuan, Euskadira migrazio-fluxuak berriro aktibatuta direla ikusten da, baina 2020an, mugikortasun-murrizketak direla eta,

geldiarazi egin dira. Boliviak goranzko joerari eutsi zion 2003tik 2007ra bitartean, urte horretan bisa eskatzen hasi ziren arte. Baldintza horrek, krisi ekonomikoarekin batera, moteldu egin zuen atzerritarren etorrera eta EAEn finkatzea. Etapa hori gaindituta, hazkunde moderatuagoa nabari da. Venezuelak, berriz, etorrera apala izan du, harik eta, herrialdeak bizi duen egoera ekonomiko, sozial eta politikoaren ondorioz, 2016. urtetik aurrera fluxuak bizkortu ziren arte. Azkenik, Ekuadorren kasuan, jatorri latinoamerikar nagusietako bat izan zen 2000. urtearen hasieran izandako lehen migrazio-boladan. Azken urteetan, zertxobait handitu da Ekuadorretik etorritako pertsonen hazkundera.

3. grafikoa

Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren jatorri herrialde nagusien bilakaera EAEn. 2003-2021




Iturria: Geuk egin EInen datuetan oinarrituta.

2 Sexuaren eta adin-taldean araberako banaketa

4. grafikoa

Atzerritarren, latinoamerikarren eta jatorri herrialde nagusietako biztanleriaren banaketa, sexuaren arabera (%). 2021



Sexuaren arabera —4. grafikoa—, latinoamerikar jatorriko kolektiboak feminizazio-maila du ezaugarri (% 61,2), oro har, atzerritar jatorriko biztanleriaren orekarekin (% 52,4) alderatzen badugu. Herrialdeka, feminizazio hori bereziki nabarmena da Nikaragua (% 72,7), Honduras (% 70,7), Paraguai (% 69,8) eta Brasilen kasuetan (% 68,3), jatorri horietako hamar lagunetik ia zazpi emakumeak baitira. Boliviak apur bat gainditzen du (% 61,3) latinoamerikarren batez besteko feminizazio-tasa; Kolonia (% 58,0), Peru (% 56,2), Ekuador (% 54,3), Venezuela (% 53,7) eta Argentina (% 50,4), berriz, beherago daude.


Iturria: Geuk egina EINen datuetan oinarrituta.

Adinaren araberako banaketari dagokionez –5. grafikoa–, ikusten da, bertako biztanleriarekin alderatuta, atzerriar jatorriko biztanleria, oro har, eta latinoamerikarrak, bereziki, gazteagoak direla. Bertako biztanleria zahartze-prozesu argian murgilduta dagoen bitartean, atzerriar jatorriko (% 48,0) eta latinoamerikar jatorriko biztanleek (% 48,9) 25 eta 45 urte artean dituzte.

Bestalde, bertako eta atzerriko biztanleek nolabaiteko oreka erakusten dute bi sexuen artean adin-tarte bakoitzean. Latinoamerikar jatorriko biztanleen kasuan, migrazio-prozesu feminizatua ikusten dugu 20-64 urte bitartekoen artean.

5. grafikoa

Bertako, atzerriko eta latinoamerikar jatorriko biztanleriaren piramidea EAEn. 2021



Iturria: Geuk egina EINen datuetan oinarrituta.



3 EAEn bizi diren latinoamerikar jatorriko biztanleen lan-egoera

Enpleguari dagokionez, Eustaten azken datuen arabera, EAEn bizi diren nazionalitate³ amerikarreko⁴ pertsonen % 40,8ko okupazio-tasa dute. Era berean, ikusten dugu biztanle amerikarren langabezia-tasa % 7,1ekoa da, eta tasa hori atzerritar guztien batez besteko langabezia-tasaren azpitik dagoela (%12,4).

Datuak sexuaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu nazionalitate amerikarreko emakumeek eta gizonen antzeko datuak dituztela euskal lan-merkatuan sartzeari dagokionez. Gizonen artean, okupazio-tasa pixka bat handiagoa da (% 41,9) emakumeena baino (% 40,2); aldiz, emakumeen langabezia-tasa askoz txikiagoa da (% 6,9) gizonena baino (% 7,4).

6. grafikoa

Atzerritarrek eta amerikarrek, lan-egoeraren eta sexuaren arabera



Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta.

³ Eustatek eta Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuek atzerriko nazionalitatearen aldagaia hartzen dute kontuan, panoramikan erabilitako atzerritar jatorriaren aldagaia hartu beharrean.

⁴ Era berean, eroldaren udal-mailako datuekin gertatzen den bezala, Eustatek argitaratutako datuek nazionalitate amerikarren bat duten pertsona guztiei egiten die erreferentzia, berdin dio Ipar Amerikako edo Latinoamerikako herrialderen bateko herritarrek izan.


Lan-afiliazioari buruzko datuei dagokienez –7. grafikoa–, erregimen orokorra da EAEn bizi diren Kolonbiako, Nikaraguako, Boliviako, Venezuelako, Hondurasko eta Paraguaiko nazionalitateko pertsonen lan-erregimen nagusia, eta kasu guztietan aise gainditzen du % 80ko muga.

Norberaren konturako langileen erregimenean lan egiten duten pertsonen kasuan, Hondurasko eta Nikaraguako biztanleak ez dira % 5 baino gehiago. Bi jatorri horiek, euskal migrazio-fluxuetan sartu berriak direlako eta migrazio-prozesuaren hasierako fasean daudelako, enplegarritasun handiagoa

dute etxeko enpleguaren eta zaintzaren sektorean. Beste jatorri latinoamerikarrekin alderatuta, % 15,7ra igo da venezuelarren kasuan, % 12,5era kolonbiarren kasuan eta % 12,4ra boliviarren kasuan.

7. grafikoa

Atzerriko, Kolonbiako, Nikaraguako, Boliviako, Venezuelako, Honduraseko eta Paraguaiko nazionalitateko biztanleria, Gizarte Segurantzako erregimenaren arabera. 2021eko iraila



Iturria: Geuk egina, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.

4 Bertako biztanleek latinoamerikar jatorriko pertsonen buruz duten pertzepzioa


Pertzepzioei eta jarrerari erreparatzen badiegu, Ikuspegiaren 2021eko Barometroaren datuen arabera, bertako biztanleek atseginez hartzen dituzte latinoamerikar jatorriko herritarrak –8. grafikoa–. 0 eta 10 puntu bitarteko eskala batean, non 0 den batere begiko ez eta 10 oso begiko, ikusten dugu nazionalitate latinoamerikar guzti-guztiak batez besteko orokorraren gainerik daudela (6,4 puntu). Zehazki, Argentina da euskal biztanleriak hobekien baloratutako jatorria, 6,7 punturekin. Jatorri horri gertutik jarraitzen diote

Paraguai, Nikaraguak, Hondurasek, Guatemalak, Boliviak, Kolonbiak, Ekuadorrek eta Peruk (6,6 puntu), baita Brasilek ere (6,5 puntu).

Bilakaerari dagokionez –9. grafikoa–, ikus dezakegu Ikuspegiaren 2007ko Barometrotik biztanleria latinoamerikarra izan dela euskal biztanleek hobekien baloratutako eremu geografikoetako bat, eta batez besteko orokorraren gainerik egon dela edizio guztietan gaur egun arte.


8. grafikoa

Atzeritar jatorriko biztanleekiko begikotasun-maila, jatorri herrialdearen arabera. 2021



9. grafikoa

Latinoamerikar jatorriko biztanleriarekiko begikotasun-mailaren bilakaera. 2007-2021



Iturria: Ikuspegi, 2007-2021 Barometroak.

Iturria: Ikuspegi.

Ondorioak

- Mende berriaren hasieratik, Latinoamerika izan da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen jatorri eremu nagusia. 2021ean 127.371 lagun zeuden, hau da, erkidegoko biztanleria osoaren % 5,8. Herrialdeka, Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela eta Ekuador dira jatorri nagusiak.
- Bizkaia da latinoamerikar jatorriko biztanleriaren pisu handiena duen lurraldea, lurraldean erroldatuta dauden atzerritar jatorriko pertsona guztien % 55,3 Latinoamerikako herrialderen batean jaioa baita. Ondoren, Gipuzkoa dator (% 49,6) eta, azkenik, Araba (% 45,5).
- Latinoamerikar jatorriko biztanle gehienak gazteak eta emakumeak dira (% 61,2), batez ere migrazio berriko jatorrietan, hala nola Nikaragua, Honduras eta Paraguai, EAEn migrazio-tradizio handiena dutenen aldean, hala nola Kolonbia edo Ekuador. Errealitate horrek zerikusia du, besteak beste, euskal lan-merkatuaren eskaerarekin eta hark eskatzen dituen profilekin.
- Lan-arloari dagokionez, nazionalitate amerikarreko pertsonen okupazio-tasa % 40,8koa da, eta langabezia-tasa, berriz, % 7,1ekoa, atzerriko biztanle guztiena baino nabarmen txikiagoa. Lan-afiliazioari dagokionez, Latinoamerikako nazionalitate nagusien artean, pertsona gehienak alta emanda daude Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean.
- Azkenik, euskal gizarteak begi onez ikusten ditu latinoamerikar jatorriko pertsonak. Argentina da begikotasunik handiena zaion jatorria: 6,7 puntu 10etik.

EAE 2021	127.371 lagun latinoamerikar jatorrikoak	Erkidegoko biztanleria osoaren % 5,8
---------------------	---	---

Jatorri nagusiak	
% 57,5	Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela eta Ekuador

Barometroa 2021	
Batez besteko begikotasuna 6,6 puntu	Hobekien ikusitako jatorrietako bat